

SENGHOR, OLERKARI TA POLITIKU

IMANOL LARREA

Olerkia ta politika, kate baten mallak. Olerkia bihotzaren irriparra batzutan, malxo garratza bestetan. Neke ta izerdiaren pozioa. Alaitasunaren agerbidea, Olerkia beti gizonaren ispillu lausogabea.

Olerkia menperatzallearen entretenimientua ta menperatuaren burrukabidea. Batarentzat usai-goxo, larros-kolore, zeru-urdiñ, maite bi-guñ, Bestearentzat berriz burni-oker, gorroto-beltz, giza-ezin. Bien-tzat beti olerkia.

Politika, bearraren eginkizuna. Gizonaren indarra. Olerkiaren iz-

rea. Maitasunaren egitekoa. Menperatzallearentzat menperabidea. Menperatuarentzat burrukabidea.

Politika ta olerkia, agertzea ta egitea. Olerkia da agertzea ta politika egitea. Senghor, Mao-tse-tung, bi olerkari politiku. Sentimentua eginkisun biurtua. Maitasuna egite egina. Gizona nortua.

Olerkia ta politika, sentimentua ta maitasuna, gizona beti. Bainan «beste» gizona. Ni eza, erria baizik.

Olerkia, ez egitea, maitatzea. Politika maitasunaren egitea.

Olerki gabe ez da politikarik, maitasun gabe ez da gizonik. Erri-rik gabe ez da ez politika ta ez olerkirik. Politikarik gabe ez erri, ez gizon, ez maitasun ta ez olerkirik.

Ezinegon, negar, alaitasun, erri, gizon. Olerki ta politika. Beti biak elkarrekin.

Sendoki negon nere dorretik kalera jetxi nedin, begiak urdiñ dituzten nere anaiekin, okabil gogorrekin.

(Leopold Senghor)

Goiko Jauna, barkatu Europa zuria. eBarrezko da, mamu basakar baten antzera nere semea eizatu duana, barkatzea.

Bearrezko da, nere amar milloi seme itxas-ontzi bateiri lotu dituztenak, ahaztutzea.

Ta begira, berriz ere porrotearen sugeak, hil zala uste nuan suge onek, nere biotzaren barruan bere burua jaso du. Bai, Jauna, bide zuzenak erakutsi ta estrata okerrak daramazkin erriari barkazioa emalozu.

Ta nere Mesopotami, nere Kongo, ildegi biurtu dituzte eguzki «zuriaren» menpean. (Leopold Senghor)

NAZIO-ARTEKO UNEA

EZARRITAKO DESORDENA

Gaur munduan eskuindarrak dira agintari. Noranai begiratu ta agintari arkitzen baldira. Ezkertiarrek eta progresistak atzeraka doaz, ez dakite zer egin. Txina alde batera utzi ta gaitortzeko ezkertiar geienak legundu agin dira. Legundu ta bigundu, Eskuindarrak indartu berriz. Okzidenteko Europa'ko sozialistak berak kapitalismo berriaren bideetan jokatzen dute. Ta kapitalismo berriaren bideetan jokatzeak, bide olek desegitea baino barrutik zuzentzea ohea dela aitortzea da. Eskuindarrak dirala agintari, kapitalismo berria beinere baino indartsuagoa dela ta sartu da gaurko politikari guztien artean "realismo" itza. Gelenetan "realismo" itzak gaurko erreallitatearen aia indar aundia ikusirik erreallitate orren estrukturak aldatu gabe, estruktura olek desegiti eta berriak jaso bearrean —ori ballitza e erreboluzioaren defintiziorik onena— daudezen estrukturak ondu besterik ez.

Bainan ori onartu ezin ditekina da. Zergatik? Mounier frantzes pentsalari trebeak zionez ori, gaurko munduan gertatzen dena, ez da ordena, desordena baizik, bainan desorden ori ezarrita dagoenez, sinistarazten dute desorden orri protxua ateratzen diotenak ordena dela ezarrita dagoelako. Bainan gariseoa ez den batek nola esan lezake gaur gertatzen dena, gaur dagoena desordena ez dela? Gizartea ordenan gizonaren neurrian dagoenean egondo da. Zer gertatzen da ordea? Indarra dela gaur nagusi, bainan ez arrazoiaren indarra, animalien indarra, animalien gizeartean indarra balta agintari, orregatik detsu liteke gaurko gizarteari ta munduari animaliena ta ez gizonena, indarrak agintzen duelako, ots, diru, dunak eta militarrik.

Ta indartsu olek ezarri ditzien estrukturak inola ere onartu ezin ditekina dira, giza izaeraren kontra baidoazte, indarra baida orientat prinzipio ta buaera, olek esklaboak besterik ez ditzute maite ta esklabo bihurtzea litza eke estruktura olen barruan jokatu nai izatea zeren au esaten baidute gaurko jauntxo olek: "ondo biziko zera ta agintaritzara liritxiko zera nere sistimaren sustraiak zalantzan jartzen ez baldin badituzu, beraz morroi biurtu zaitze eta nerekin ondo izango zera".

Prinzipio bada ez dezateke ezkertiarrek eskuindarrak eskelifikatu bideetan jokatu. Dударik ez dago ezkertiarrek indar eskascan dabiltzala gaurko. Bainan batailla bat gaitzea gudu osoa gaitzea ez dela aspalditxo batean norbaitek esana da. Orain dela iru urte oraindik ere mundua ezkertiarren eskuetara zetorrek zirudien. Kennedy'ren garaia ziran, Afrika'ko erreboluziozaleen garaia, Eskuindarrak ordea ezkertiarrek baino azkarra-goak izan dira ta batailla au irabazi dute, ez du orrek esan nai ordea beirako jauntxo geldituko diranik, behar bada ba liteke balazkoa bainan baita ere ba liteke ezekoa.

Orregatik gaurko erreallitatearen eta egoeraren gaitzean penesatzerakoan ez da ahaztu behar bi epe diferentetan neurtu behar dirala histori ta gaurko erreallitatea, epe motzean eta epe luzean, ta epe motza kontrakoa izateak ez duela, esan nai luzea ere ala izango danki.

Bainan garai berriak etorri litezkela ta epe motza kontrakoa izateak ezkertiarrek galdutela ez duela adierazi nai esatea ez ote da ezkertiarren buruarentzat kontsolamendu zortzaille bat? Ez ote daude, besterik ezean, gertakizun arriagarrinen baten esperan? Ba liteke ezkertiar batzuek tontoki askotan ori uste izatea. Ezkertiarrek edo bere burua ezkertiar bezela daukatena. Ba dira errabiatur "ikusiko duzute buelta etorritakoan" diardute. Ori ahalgabearen errabia besterik ez da. Benetako ezkertiarrek ez darabilkite orrelako mintzagarrik. Zer egiten du he-raz? Ezer esan gabe zai gelditu? Ez bainan ezetz onen arrazola beste artikulu baten gala da.

RIKARDO ARREGI



"Entzun ta ikasi."

ERLOJU TA BITXITEGIA

Eduardo Chopeitia

Getaria, 10 Urrut. 17751 Etxekoa 22700 DONOSTIA

BONBOITEGIA
BEZUZAK

Lor

DONOSTIA
Hnos. Iturrino, 22
Urrutizkifia: 1 94 15

